



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
199. zkia . 2007ko ekaina

HONDARRIBIKO UDALA - EUSKARA BATZORDEA - DOHAIN



Udalbatza berria osatu da

4-10. Herrian barrena

12-13. Elkarriketa: Salbortxo Gonzalez

16-17. Alkate berria

24. Gerra Zibilaren liburua

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Maiatzako demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



Tel.: 943 11 02 01
San Pedro, 33 - 20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Hawaii

Errebellin kalea 3 behe

20280 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

Udan ere euskaraz



Uda iristearekin batera ikastetxe eta euskaltegiek amaitu dituzte beren ikasturteak. Aisiaren garaian gaude eta ez dago irakasleen bultzadarik euskaraz hitz egiteko, norberak arduratu behar du.

Hala ere, inguru erdaldunean bizi diren ikasleei, edota uda garaian euskaraz hitz egiteko aukera handirik ez dutenei laguntzeko "Uztaileko Ikastaroak" antolatzen dituzte herriko ikastetxeek Udala Euskara Zerbitzu honen diru-laguntzarekin.

Aldi berean Udaleko Gazteria Departamenduak aisialdiko beste zenbait ekintza antolatzen ditu uda garaian, hola nola Udaleku Irekia, Uda Abentura etab. Hauek guztiak euskaraz izaten dira, beraz herriko haur eta gazteek opor garaian euskaraz bizitzeko eta jolasteko aukera izaten dute.

Baina guztiok dakigu Hondarribiak nolako aldaketa izaten duen udan, jende kopuru handia etortzen da bertara eguraldi onak eta herriaren xarmak erakarrita, eta bisitari horietako asko euskaldunak izaten dira, inguruko herri

edo herrialdeetakoak. Horregatik, Hondarribia herri euskalduna dela erakutsi behar dugu, bertaratzen diren euskaldunak eroso aurki daitezen eta euskaldun ez direnek ere gure hizkuntza ezagutzeko aukera izan dezaten.

Hiriko hizkuntza-paisaia edo hiriaren itxura euskalduntzen saiatzen da Euskara Zerbitzu hau: denda eta tabernetako errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzak ematen ditu, jatetxeetako menuak, establezimendueta-ko oharra etab. euskaratzeko kanpaina egiten du urtero eta doako itzulpena eskaintzen die.

Bestalde "Uda Euskaraz" izeneko hiztegiak kaleratzen ditu. Hiztegitxo hauetan hainbat hitz eta esaldi agertzen dira 9 hizkuntzatan idatzita, eta batez ere atzeritarrek oso pozik hartzen dituzte eta Euskal Herrian gaudela eta hemen bertako hizkuntza bat badagoela ohartzeaz gainera, hitz batzuk euskaraz erabiltzen saiatzen dira. Beraz guztiok saia gaitezen udan ere bizitzen.

UDAL EUSKARA ZERBITZUA

Argitaratzailea:

Udala Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

info@zifcomunicacion.com

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Ana Lupe Iridoy

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK EKAINAN ETA UZTAILEAN

17- Erauskin San Pedro, 22	943 641018
24- Mayi Martinez Almirante Alonso kalea, z/g	943 642191
1- Iraola San Pedro, 5	943 641027
8- Sagrario Fiz Sokoa Merkatalgunea	943 644316
15- Almajano Mendelu, 26	943 640068
22- Alameda Harresilanda, 9	943 645798
29- Erauskin San Pedro, 22	943 641018
31- Iraola San Pedro, 5	943 641027

TXANDAKO OKINDEGIAK EKAINAN ETA UZTAILEAN

17- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212
24- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975
1- Garmendia Portuan	943 641136
8- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212
15- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975
22- Garmendia Portuan	943 641136
29- Martinez Kale Nagusia, 17	943 641212
31- Arratibel Mendelu auzoan	943 641975

INEM erakundeak ia 121.000 euro eman dizkio udalari enplegu sustapeneko proiektuak bideratzeko

INEM-Corporaciones Locales izeneko enplegu sustapen programaren barnean, INEM erakundeak Hondarribiko Udalari 120.623,43 euroko laguntza eman dio zenbait enplegu sustapen programa garatu ahal izateko. Zazpi izango dira lagundutako proiektuak eta 16 lanean ariko diren pertsonak. Langabetuei zuzendutako ekimena da.

Dirulaguntza jasoko duten zenbait proiektu jadanik historikoak dira, hala nola Baratza, Botika baserrian garatzen dena, eta Itsas Garbiketa, hain zuzen. Biek 26.899,71 euroko laguntza jasoko dute eta bakoitzean bost pertsona enplegatuko dira.

Beste proiektu bat Agenda 21 da, zeinak 8.449,46 euroko laguntza jasoko duen. 9.917,84 euro emakumearen enplegu sustapenerako programarentzat izango dira. Hirugarren adinari dagokionez, Udalak bi laguntza jasoko ditu beste hainbat proiektu garatzeko: lehena hirugarren adina eta nekazal giroaren ingurukoa izango da, eta bigarrena, gure nagusien aldeko programak burutzeko izango da. Bakoitzak 12.430 euroko laguntza izango du. Lau proiektu hauetako bakoitzean pertsona bat ariko da lanean.

Azkenik, INEM erakundeak 23.596,65 euroko laguntza eman du bi pertsonak bertoko prentsa-buruzko datu base bat sortu dezaten.



Baratza programa

Lehorreratzeko karroa desagertu egingo da

Inguruan egin beharreko proiektua burutzeko ezinbestekoa da

Duela hamar urtetik hona konpondu gabeko auziak argia ikusi du azkenean. Portu auzoko kaian kokatutako lonjari buruzko akordioa Udalak eta Kofradiak 1997ko



Lehorreratzeko karroaren irudi bat

apirilaren 22an sinatu zuten. Horren arabera, Kofradiak bere kontzesio administratiboari uko egiten zion, Hondarribiarentzat oso garrantzitsua den proiektu bat ekiteko bidea irekiaz.

Borja Jauregi alkatearen hitzetan, "proiektua ezinbestekoa da. Hiria erdian eremu handi bat herritarren erabilerarako berreskuratu nahi da, kultura, osasun eta gizarte ekintzetarako hornidura publikoak eraiki ahal izateko, eta aldi berean aparkaleku handi bat eta oinezkoentzako plaza bat egiteko, Bidasoa eta Butron pasealekuak lotuko dira, itsasaldean paseo eta jolaserako eremu publikoa sortuz".

Kofradiak kontzesio administratiboari uko egiteagatik Udalak 480.000 euro ordainduko dizkio, "sortutako galerak, amortizatu gabeko inbertsioak eta bertan zuen jarduera desegin eta beste leku batera eramateko gastuak nolabait kitatzeko asmoz" gaineratu zuen Alkateak.

"Lehorreratzeko karroak egun lau itsasontziri ematen dio zerbitzua bakarrik. Itsasontzi denek karroaren zerbitzua Pasaian egin dezakete, eta beraz, gureak bere funtzionalitatea galtzen du. Hori gutxi balitz, inguruan burutu nahi dugun proiektuaren azaleraren %40 hartzen du karroak, eta horrek dena oztopatzen digu, beraz, hor ez egotea ezinbestekoa da" amaitu zuen Borja Jauregik.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Bi kale berri izendatu dira

Europa hiribidea eta Minatera kalea berriak dira

Hauteskunde eguna aurretik burutu zen azken Osoko Bilkuran, hiriko bi kale berri izendatzea erabaki zuten zinegotziek. Denek aldeko botua eman zuten Brankak, izan ezik. Zehazki, itsas ibilbide berriari "Europa hiribidea" deitzea erabaki zen, Europar Batasunaren aitzindaria den Erromako Itunak 50 urte betetzen dituela eta Europa Asoziazioaren eskakizunari erantzunez. Hortaz gain, Kirol Kaiari itzulia ematen dion kalea Minatera deituko da, JJ. Furundarenak idatzitako 'Hondarribiko Toponimia' liburuan toponimo hau aurkitzen baita inguru honetan.



Minatera kalea izango da errepide hau



Europa hiribidea izango denaren irudi bat

Madalen karrika eta Donostia kalea lotuko dituen eskailera mekanikoa sortzeko bidean da

Proiektua idatzi eta obra burutzeko lehiaketa deitu da


Maiatzaren 24an ospatu zen Osoko Bilkuran erabaki zenez, Portu auzoa eta hiriaren goiko aldea elkartuko dituen eskilara mekanikoa eta igogailuaren proiektua abian jarri da. Bertan, Portu auzoko irisgarritasuna hobetzeko proiektua idatzi eta obra burutzeko lehiaketa arautuko duten baldintzen plegua eta aurreproiektua onartzeko proposamena onartu ziren.

Jauregi alkateak esan zuenez, "hiri erdia eta goialdearen arteko komunikazioa hobetu egin nahi da. Behetik hasita, lehen bi tramoak eskilaka mekanikoak izango dira, gero igogailu bat goraino iristeko eta azkenik, espaloiaz aldatzeko pasarela bat ipiniko da. Hala ere, argi utzi nahi dut ez dela lehiaketa itxi bat, eta aurkezten diren proiektuek aldagetak gehi ditzazketela, beti hobekuntzak sartzen diren neurrian".

"2007ko aurrekontuan" jarraitu zuen Jauregik, "gobernuak diru kopuru bat hitzartu zuen honetarako, hiriaren goiko aldean bizi direnek biziki eskatzen diguten zerbait da gainera. Hori dela eta, bi pausuak une berean ematea erabaki dugu, denbora gehiago ez galtzeko. Proiektua idazteko sei hilabeteko epea dago, eta gero, proiektua onartzen denean, hamabi hilabete gehiago lanak egiteko".



Donostia kalera daramaten eskailerak



Ibarretxe lehendakaria Alameda jatetxeko kideekin



Juan Jose Ibarretxe eta Alameda jatetxeko kideak Ajuria Enean ateratako irudian


Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Hondarribiko Alameda jatetxeak prestatutako bazkari goxo bat dastatzeko aukera izan du duela aste gutxi. Bertoko baratza eta arrainak nagusi ziren bazkari bat eskaini zioten sukaldariak lehendakariari eta bere laguntzaileei.

Gorka Txapartegirekin batera han izan ziren bere anaiak, Kepa, sukaldeko burua eta Mikel, jangelako burua, baita sukaldeko bigarrena den Jon Bereau eta Arantxa Galvany zerbitzailea.

Alameda jatetxeko kideek Juan Jose Ibarretxeri Hondarribia Arraun Elkarteko mailot berdea eman zioten. Euskal Autonomia Erkidegoko buruak elkarte berdearen jarraitzailea dela aitortu zuen, gaztetan uda askotan Hondarribira etortzen baitzen.

Etxeko-lanak dira emakumeen lan munduratzeko oztopo nagusiak

2005ean martxan jarritako GERTU programaren azken urratsa aurkeztu dute, Irun eta Hondarribiko Gizarte Ongizate arloek komunean. Bidasoa-Bizirik Garapen Agentziak zuzenduriko egitasmo honen oinarriko helburua, emakumeen enplegua sustatzea da. Eta 2005ean langabezia ziren eskualdeko emakume talde batekin lanean hasi ziren une beretik, emazteen lan munduratzeko orduan oztopoak eta arazoak ugariak direla argi gelditu zen.



Pelaez eta De Bengoechea zinegotziak

Maite Pelaezek, ko arloko zinegotziak, gizartea sentsibilizatze apostua egiten du: "Etxeko lanak ez dira dohainik, ez dira magiaren bitartez egiten, norbaitek egin behar ditu eta gehienetan emakumearen gain gelditzen da lan hori", azaltzen du zinegotzi jeltzaleak. Egoera honen aurrean, estrategia sozial berri baten ikuspegitik antolatu beharko litzateke gizartea. Zentzu honetan, herritarrek konzientziazteaz gain, erakunde publiko eta gizarte eragile guztien beharra dagoela, azpimarratu du Pelaezek.

Izan ere, etorkizunean etxeko-lanak garrantzitsuak direla ulertu eta elkarlagundu denoi dagokigula beharrezkoa da helaraztea. Juana De Bengoechearen esanetan, "gure itxaropena datorren belaunaldian dugu, beraz, etxeko-lanak eta zaintza aktibitatearen errealitatea txikiei erakutsi behar diegu".

Gizarteratze kanpaina

GERTU programaren "Magian Sinesten Al Duzu?" kanpainaren gizarteratzea bi fasetan burutuko da Bidasoa eskualdean. Hondarribian abiatuko da eta asteburuetan Butroi pasealekuan informazio gun bat jarriko dute. Pelaezek azaldu duenez, "liburuxka bat eta pegatinak ere zabalduko dira. Baita DVD bat ere".

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga,4
 Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

AFAGI elkarteak gaixo eta bere zaintzaileentzat oporrak antolatuko ditu



Alzheimerre duten gaixo eta zaintzaileentzat zuzentzen da Afagi-ren ekimen hau

Gipuzkoako Foru Aldundiak Alzheimer edota beste gaixotasun bat duten gaixo eta bere zaintzaileentzat oporrak antolatu ditu. Ekimen honen helburua, etengabe gaixo hauen ardura duten pertsona hauei eta nola ez, gaixoari berari, hamar eguneko egonaldi bat eskaintzea da, ahal den neurrian indarra hartu eta bere lanean jarraitzea da.

Kantabriako Noja herriko hotel batean izango da hamar eguneko egonaldia, eta hiru txanda beteko dira; ekainaren 4tik 14ra, eta 18tik 28ra lehen biak, eta irailaren 10etik 20ra azkena.

Gaioxoa eta bere zaintzailearekin batera, Afagiko (Gipuzkoako Alzheimerre duten gaixoen familiartekoen elkarte) erantzule, psikologo eta laguntzaile bana egongo dira Nojan, beharrezkoa duten laguntza eskaintzeko.

Txanda bakoitzean hamabost bikotek parte hartuko dute. Gaixoen egonaldia doakoa izango da, eta zaintzaileak aldiz 349,23 euro ordaindu beharko ditu.

Maiatzeko alean egindako huts baten zuzenketa

1.955

Mila bederatzirehun berrogeita hamabostian gertatutakoa kontatu nahi dut abestian Donibaneko Lohitzun Benito Enparanen herria harek eman baitzigun arrantzatzeko fedia zarbaiten beharrean zegoen Hondarribia arrai batere ez da negua oso luzia	Guadalupeko Ama zihoan hor hubilian higer eta natividad kuadrilla denen txopian Virgen del Mar zutela estriborreko aldian Berrogeita hamar urte gertatu baitzen hau dena gaur esaten omen dute guztia joan dela izugarria gertatzen itsasoaren hondamena arraiekin batera arrantzal jendearena nekea eta pena ez gatoz kantatzera barko haiei esker egun badugu aukera
Donibaneko bi anaiak Frantxiska dago parian laister hondarbitarrak zirela atzian San Ramon eta San Pedro joaki dire aurre-aurrian	

Pasa den alean, Herri Kanta lehiaketaren inguruan eman genuen berrian, huts nabari bat egin genuen. Artikuluaren amaieran, "1955" izeneko abesti baten letrak argitaratu genituen, eta egilea Prudentzio Lekuona zela esan genuen.

Oker geunden, ez baita horrela. Musika eta letra Joxe Mari Larrartek egindakoak dira, eta moldaketak aldiz Leticia Vergarak. Aurtengo Herri Kanta lehiaketan Surbesta taldeak abestu du lan berria, eta baita txalo ugari jaso ere.

Datorren alean, sakonduko dugu olerkian kontatzen den historia, pena merezi du eta.



**BAR
HONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Hondartza denboraldia ireki da

Urtero bezala, hondartza zaletuen segurtasuna, osasuna, erosotasuna edota aisialdia bermatuko duten zerbitzuak dira Udalaren betebeharr nagusiak.

Aitor Kerejeta alkateak dioenez, "ekainaren 15ean TAO aparkaleku sistema martxan jartzen da Ramon Iribarren kalean eta hondartzako aparkalekuan". Horretarako, TAO zerbitzuaz arduratuko diren 15 langile izango dira. Kerejetak azaltzen duenez, "aurten gainera, beste bi hondartzain izango dira hondartzatik bueltara zaintzen".

Bestalde, Gurutze Gorriaren zaindaritzapean izango dira berriz ere bainulariak. Bi dorretan banatuak izango dira, komunetan izaten diren oinarritzko sorospen zerbitzuez gain. Bertan, gizon eta emakumezkoentzako lau laguntzako sei dutxa eta oinak garbitzeko bost iturri izango dira hondartzan. Komunei dagokionez, Kerejetak dio, ordutegi zehatz batzuetan arituko direla martxan: "komunak goizeko 09:00etatik iluntzeko 20:30etara irekiak izango dira, eta aldagelak 10:00etatik 19:30etara".

Era berean, gazteen interesa piztu ohi duten beste zerbitzu batzuk martxan jarriko dira berriz ere, ekainaren 15etik aurrera. Kerejetak esan duenez, "Arraun Elkarteak piraguak alokatzeko aukera emango du eta Bidasoa Igeriketa taldeak, berriz, urteroko Tin-Tin igerilekuaren eta alboko haur-jolasen ardura hartuko du".

Bestalde, Prebentzio Komunitarioak iaz lehen aldiz antolatutako gazteentzako jarduerak errepikatzea erabaki du. Maite Pelaezek, Gazteria eta Ongizate arloko zinegotziak esandakoaren arabera, "Sportsmundi erakundearekin elkarlanean antolatutako hondartza kirolak arrakasta handia izan zuten 2006an".

Kasino Zaharrak txangoa antolatu du Biarritz, Baiona eta Lesakara

Kasino Zaharrak txango berri bat antolatu du, oraingo honetan Biarritz, Baiona eta Lesaka izango direlarik bisitatuko diren herriak. Aukeratu den eguna uztailaren 10 da, asteartea. Irteera goizeko 8.00etan izango da Alamedatik, eta bazkaria Etxalarren.

Izen ematea ekainaren 22tik uztailaren 6ra izango da Adinekoen Etxeko bulegoan, plazak amaitu arte. Bulegoa, astelehena, asteazkena eta ostiraletan irekiko da, goizeko 10:30etatik 12:00etara.

Bazkide bakoitzak txango honetarako 23 euro ordaindu beharko ditu. Informazio gehiagorako, 943111291 telefonora deitu behar da.



Txangoan Biarritz bisitatzeko aukera egongo da

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Hendaiak aireportuaren auzia Europar Batasunera eramán du



Kotte Ezenarro alkatea eta Corinne Lepage abokatua

Azken hileotan Hondarribiko aireportuaren afera nahikoa ixilik zegoen. Maiatzean ospatu ziren hauteskundeetan zenbait alderdik gai hau izpide izan zuten, baina legea dagoen bezala egonda, auzia ez zen mugitu.

1992. urteaz geroztik, Frantzia eta Espainiak akordio bat sinatua dute, eta bertan agertzen denez, egunean zehar bakarrik 24 hegaldi egin daitezke Hondarribian. Gaur egun, kopuru hori 36ra heltzen da. Hori ikusita, Hendaiako Udalak bere desadostasuna agertu du, eta honako mezu hau zabaltu nahi izan du:

"Hendaiako Herriko Etxeak Frantses Gobernuak ordezkariengana egindako eskaera guztiak aireportu horren trafikoa mugatzeko erantzunik gabe gelditu dira. Hori dela eta, maiatzaren 2ko Herriko Kontseiluko bilkuran aipatu zuenez, Kotte Ezenarro Europako auzialdian errekurso jartzea bat erabaki du, Hondarribiko aireportuaren funtzionamendua eraentzen duen 1992ko martxoaren 18ko Frantzia eta Espainiaren arteko hitzarmena errespetatua izan dadin. Hendaiako Auzapezak dossier horren kudeaketa Corinne Lepage abokatuaren esku utzi du".

Bizilagunek nahi zuten biribilgunea lortuko dute

2006an hasi ziren Letxunborro etorbidearen trafikoa berrantolatzeke plana gauzatzeko lanak. Hastapenean Zubimuxu eta Ospitale-Puianako biribilguneak ziren aurreikusitako bakarrak, baina Mendelu eta Anakako bizilagunen eskaerei kasu eginez, etorbidearen erdian hirugarrena eraikitzea erabaki du orain Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Anaka, Gibeleta eta Mendeluko bizilagunak pozik agertu dira erabakiarekin. Izan ere, "hiru auzo hauen bidegurutzea" bilakatuko baita errotanda berri hau. Gainera, erabakia auzo hauek elkarrekin indarrak bildu eta lan egin ostean iritsi da. 2006ko irailean, Lucio Irigoyenek, Mendelu auzo elkarteko lehendakariak astekari honetan argi azaldu baitzuen: "auzo elkartean leporaino gaude sartuak honekin, eta ez gara kikilduko, lanean jarraituko dugu errotanda hori lortu arte".

Irailaren 19an hiru erakundeen artean ospatutako bilkura berri batean, Aldundiak proiektua moldatu eta Gibenaka izeneko errotondaren eraikitzea onartu zuen erakundeak. Errotanda berri honek, Jaizkibel kalea eta Letxunborro etorbidea lotuko ditu, GI-2134 errepidearen 9,9 kilometroan. Kostu osoa 941.000 eurokoa izango da.

Bitxikeria izan daitekeen arren, errotanda (Gibeleta, Mendelu eta Anaka artea dagoenez) bizilagunek izendatutakoa dugu: Gibenaka.

Lucio Irigoyen, Mendelu auzo elkarteko lehendakaria harro agertu da: "hilabete hauetan eszeptizismo uneak bizi izan ditugu, baina pozik gaude orain ikusita ahalegin guztiak emaitzak eman dituztela".



Letxunborro hiribidea



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK
Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Aireportuko aparkalekuan lanak burutu dira

Azken hileotan birgaitze lanetan ikusi dugu Hondarribiko aireportuko aparkalekua. Estreinatuen aparkaleku berrian, minutuko kobratzen hasi ziren ekainaren 13an. Aena (Espainiar Aireportu eta Aire Nabigazioa)



Aireportuko aparkalekua

erakundeak Hondarribiko aireportuko aparkalekuak berrantolatatu eta estaltzeko lanak egin ditu azken hileotan, guztira, 585 ibilgailuentzako aparkalekua eta inguruko 400 metro karratuko eremuaren egokitzapen lanak gauzatu direlarik.

1.100.000 euroko inbertsioa egin du Espainiako gobernuak. Ondoren, aparkalekuen ordainketa sistema indarrean jarri zuen.

Hala ere, Hondarribiko aireportuko zerbitzuek garesti diren ospea dute. Taxi zerbitzua espainiar Estatuko garestien artean aurkitzen da. Taxian Donostia-Aireportua bidaiaren joan-etorriak 58 euro balio du, Miarritze, Santander edota Bilbotik europar hiriburuetarako hegaldien prezioak baino garestia goa zenbait kasutan.

Estatu mailako aireportuetako aparkalekuen prezioak batez beste 1,10 euro ordurokoa da. Hamaika euro eguna eta 79 euro astea. Hori da Bilboko Loiu aireportuaren kasua. Madril, Bartzelona edota Malagako aireportuetan, berriz, asteak 98 euroko kostua dauka. Eta egindako inbertsioa kontuan hartuta, prezio hauekin jarri zuen martxan Aenak Hondarribiko aparkalekua.

Filme bat grabatzen ari dira Hondarribian



Filmearen zati bat Santiago kalean grabatu da

■ "La casa del padre" izeneko filmea grabatzen ari dira egun hauetan Hondarribian. Gorka Merchán da zuzendaria, Monfort productora, eta Carmelo Gómez, Emma Suárez, Juan José Ballesta (El Bola), Verónica Echegui (La Juani) eta Alex Angulo aktoreak, beste askoren artean.

Filmean Argentinatik etorritako pelotari ospetsu baten (Carmelo Gomez) historia kontatzen da. Pilotaren bidez bere ilobarengana (Juan Jose Ballesta) hurbiltzen saiatzen da. Filmean zehar, euskal politikak dauzkan arazoak islatzen dira, kale borroka eta bere eragileetatik hasita presioa dela eta Euskal Herriatik joan behar izan duenara heldu arte.

Pertsonaiak interpretatzeko, aktoreak pilota jokuan jardun dira, baita euskara ikasten ere. Euskal Herriko gaztelera ere ikasi dute, Madrilen hitzegiten denarekin oso desberdina omen da eta.

Hondarribiaz gain, "La casa del padre" Hernani, Donostia eta Pasaian grabatu da.

Aise
1971-1974

Aise Iruñean eta
orain **Hondarribian!**

Zentro psikopedagogikoa
Laguntza eskola

Miren Zabala
Juan Laborda 2, behea
20280 Hondarribia
Tel.: 943 64 05 65 - 656 71 22 92
E-mail: aisebidasoa@euskalerrria.org

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Erreginaren Baluarte lanen azken fasean murgildu da

Duela urte bat abiatu zen Erreginaren Baluarte zaharberitze prozesua. Epeak betetzen ari direlaren seinale da artikuluko honetako irudia, ekainaren erdialde-
ra ateratakoa, begibistan daude emandako aurrerapausuak. Baluarteko barnekaldean burutuzen ari diren lanetaz gain, harresia garbitzen hasi baitziren asteak direla. Dena dela, zaharberitze lanak moldatzera behartua ikusi du Udalak bere burua. Izan ere, lanak ikusi daitekeena baino haratago joan baitira. Aitor Kerejeta alkatearen arabera, "Udalak bazuen planuetan barne galeria eta arrastoen berri".



Berritzen ari diran alde bat

Baina Arkeolan elkarteak burututako indusketa lanei esker jakin izan da, Erreginaren Gela XV. Mendekoa dela edota egitura gehienak XVI. Mendekoak direla. Bestalde, "eskailera batzuk, lurperaturik zeuden paretak edota bigarren patio bat" izan dira denboraren ahanzmendutik atera dituztenak. Harridura sortu duen aurkikuntza nagusia, hala ere, Erreginaren Baluartearen forma eta eraikitze sistema izan da. Adituek ikertu dutenez, "borobila da eta harrian tailaturik dago".

Une hauetan Erreginaren Baluarte berriko argiztapenean ari da Udala lanean. Bistan dena, Alde Zaharreko gune honek sortuko duen jakinminaren aurrean, bisitariek goza dezaten argiztapen proposena ipintzen ari baitira. Alkaterearen hitzetan, "teknologia berriko argiztapen sistema izango da, garestiagoa baina kontsumo urriko argiztapen sistema denez, luzarora errentagarria". Lehen aldia izango da kaleko egitura batean halako sistema bat erabiltzen dela.

Hasi dira arrantzaleen etxebizitzak eraikitzen

Bernat Etxepare kalean dauden arrantzaleen xaia eta etxebizitzak deagerpena hurbil dago. Xaiak jadanik desagertu dira, eta orain, xaiak hauek zeuden tokian arrantzaleen etxebizitzak eraikiko dira. Amaitutakoan, egun kalearen perimetroa osatzen duten etxebizitzak bota egingo dira eta beste 50 etxebizitza eraikiko, hauek merkatu librean saltzeko.

Norberto Emazabel abade nagusiak esan bezala, "makinak apirilerako lanean hastea espero genuen, aste batzuk atzeratu dira azkenean. Lehenik eta behin gauzak hustu dira eta ezertarako baliorik ez zuten xaiak bota egin dira. Hortik aurrera, orain xaiak dauden tokian Kofradiaren etxebizitzak eraikiko dira, eta orain arrantzaleak dauden etxebizitzetan, salmenta librean egiteko etxeak. Azken hauen salmentarekin prozesu osoa ordainduko da".

Denetara 105 etxebizitza eraikiko dira, horietatik 56 orain bizi diren familiak bizitzeko izango direlarik, Kofradiari ordaindu beharreko alokairuan biziko direlarik.

Norberto Emazabel pozik ageri zen. "Guretzat oso akordio positiboa da, ezer ordaindu gabe etxebizitza berriak izango bait ditugu. Gauzak ongi badoaz, 2008ko udazkenerako arrantzaleen etxeak eraikita egotea espero dugu".



Arrantzaleen xaiak betirako desagertu dira

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkartea • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

SALBORTXO GONZALEZ



Istorio xelebreak denoi gustatzen zaizkigu eta gauza bitxien zale zaretenoi, biziki gomendatzen dizuet hilabete honetako elkarrizketa hauxe adi-adi irakurtzea. Salbortxo Gonzalez dugu hil honetako protagonista, ofizioz arotza izana, Tomas Izaren taldean garai batean arraunean ibilia eta Amuteko komentuko kanpaiaren gainean pasadizo benetan bitxia kontatu diguna. Ia inork ez daki Amuteko kanpaiak bere baitan gordetzen duen sekretua; kasualitateak emanda Salbortxok deskubritua eta Amuteko fraileek beraiek ere ezagutzen ez zutena. Horregatik, zuetako askori gustatuko zaizuelakoan, hona gizon jator honek Amuteko kanpaiaz, arraunaz eta bere bizipenez kontatutakoak.

Jendeak jakin dezan, zu arotza izana zara eta lanean zenbiltzala gauza bitxi askoa gertatu zitzaizun Amuteko komentuko kanpaiarekin, ez da hala?

Bai, kontua da Amuteko fraileek komentuko ate berria egiteko eskatu zidatela eta beraiek agindu bezala bete nuen nire lana. Kasualitateak emanda, kanpaia ere hondatuta zuten orduan, eta teilatura igo eta kanpaia konpontzeko eskatu zidaten. Lagun batek teilatuan zegoen aldamioari eusten zion bitartean, aldamio gainera igo eta kanpai barruan sartu nintzen kanpaiaren mihia konpontzera. Kanpai barruan, ordea, espero ez nuen zerbait topatu nuen: kanpaiak erliebean testu bat grabatua zuen. Orduan, libreta eta boligrafoa ahal nuen

moduan hartu eta bertan jartzen zuena apuntatu nuen, ez gutxi kostata (kanpaia mugitu egiten baitzen).

Salbortxok esan digunez, kanpaiaren agertzen den testua etetik gabe, jarraian dago idatzita; guk, ordea, zatitu egin dugu errazago irakur dezazuen. Hauxe da, Salbortxoren arabera, Amuteko kanpaiaren ageri den idatzia:

"He/sido/fundida/en/S.Sebastian/en/noviembre/de/1.947./por/fundiciones/Ibarreta/y/me/han/puesto/de/nombre/"JoseRicardo".

Kanpaiaren beste aldean, berriz, beste hau ere idatzita ageri


AXOLA

INMOBILIARIA AGENTZIA

Salmentak
erosketak eta
alokairuak

San Pedro,1 - Hondarribia
Tel.: 943 11 03 38 - 669704686 - 619411542



**RESTAURANTE
ASADOR**

TINERE

C/ MAYOR, 31
TEL. 943 64 35 00
HONDARRIBIA

omen da:

"Pueblo/de/Fuenterrabia/caserios/del/Bidasoa/sufridos/hombres/d el/mar/ya/soy/nuevamente/con/vosotros/un/dia/perdi/mi/voz/por/e so/con/pena/deje/de/llamaros/ahora/he/sido/refundida/y/coloca-da/en/lo/mas/alto/de/esta/santa/casa/donde/con/mis/ondas/sono-ras/procurare/un/despertar/alegre/venid/pues/a/mi/queridos/todos /yo/pedire/al/todo/poderoso/vuestro/bienestar/y/si/un/dia/os/veis/e n/peligro/os/tienda/una/mano/siempre/generosa".

Hortaz, Amuteko kanpaiak "Jose Ricardo" izena al du?

Bai, hala dirudi. Testua jasotzen bukatu nuenean Amuteko fraileei nire aurkikuntza azaldu nien, baina beraiek ez zuten horren berri.

Inongo artxibotan ez omen zen agertzen eta beraientzat ere deskubrimendu izan zen kanpaiak bere baitan inskripzioa gordetzen zuela eta "Jose Ricardo" izena zuela jakitea. Hala ere, kanpaiak izena dutela ez da gauza berria. Ni askotan izan naiz Venezian, eta bertako San Markos plazan, esaterako, bada bost kanpai dituen kanpandorra eta kanpai bakoitzak bere izena du.

Izen bitxi horrek, ordea, non du jatorria?

Auskalo! Amuteko fraileek ez dakite eta nik neuk ere ez dakit zer dela eta jarri zioten izen hori. Kanpaia bedekatzeko Donostiatik espresuki gotzaia ekarri zutela gogoan dut eta aipatzekoa ere bada Amute kanpaiak oso hots polita duela. Tamalez, denbora da mutu dagoela, kanpai-etxea puskatua baitago.



Salbortxo Gonzalez, Molla hiribidean

Kanpaiaren gaia alde batera utzita, arraunean ere ibilia zara Tomas Izaren taldean. Nola bizi izan zenuen garai hura?

Bai, Tomas Iza, Lujanbio eta beste makina batekin ibili nintzen arraunean gazte garaian. Ni Amuten jaioa naiz eta bertako elizaren arrimuan ekintza ugari egiten genituen, horien artean arrauna. Arraunlariak beti Amuten izaten ziren; igandero bazen beti apustu

edo antzekoren bat. Padre Ladislao de Bidaniari -edo bestela esanda, Beko-Errotako Felixi- arraunaren inguruan zerbait egitea proposatu nion eta hark asko lagundu gintuen. Jaitzubia aldetik jendea bildu genuen -Gebalarreko Joxe, Ollurtazpiko Joxe Manuel...- eta oraindik ere gogoan dut nola gordetzen genuen trainerilla komentuko ukuiluan. Denborarekin gauza indartzen joan zen eta gerora, orain Ama Guadalupekoa ikastola den leku horretan hasi ginen gordetzen trainerua. Gure



Ainara Elizondo

taldea ez zen parrandazalea, nahiko ondo moldatzen ginen elkarrekin eta Kontxako hiru bandera ekarri genituen. Kirola gustuko genuen eta gure artean harri jasotzaileak ere bagenituen. Behin, gainera, ederra egin nion nik aitari harriaren kontura. Amuteko festak ziren eta harri jasotzea ere antolatu zen jaietan. Gauza da harria entregatzeko berandu zela eta gure etxean gorde genuela hurrengo egunera arte. Halaxe, denak lotara joan zirenean, lagunei deitu, harria baratzera atera eta hantxe ibili ginen nork jasoaldi gehien egin. Hurrengo goizean izan ziren kontuak; a ze

arrosarioa aitarena baratzeko tomateak zanpa-zanpa eginda ikusi zituenean!

Gaur egungo arraunlari baten entrenamendua gogorra da, baina garai batekoena ere ez zen samurragoa izango...

Bai, noski. Entrenatu, egunero entrenatzen genuen, baina bi hila-bete bakarrik. Jendeak garai hartan ez zuen baliabiderik, eta oinez edo bizikletaz ibili beharra zegoen. Oraingo erak desberdinak dira.

San Pedro 49, bajo 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 641 995	Zuloaga, 8 20280 HONDARRIBIA Tel. 943 111 656

	GESTIÓN: CONTABLE, FISCAL, LABORAL * SEGUROS
GESTIOA: * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA ETA LANAREKIN LOTUTAKOA * ASEGUROAK	

“Euskaldunon antzinako sustraiak” (V)



Martin Iturbe

Landareeri, eta euskadunontzat landareek izan duten esanahiari begira nator gaur.

F) LANDAREAK

Landareak bizitzaren agerpen dira; etengabe sortzen eta ernetzen den bizitzaren agerpen. Ez da, beraz, harrigarria euskaldunak betidanik belarretara jotzea, bizitza horretaz jabetzeko edo bizitza hori zaintzeko (ez ote digu, agian, horixe bera adierazi nahi gaurregungo sendabelarren zaletsunak?)

Hori dela_ta, leku bereizia dute erritoetan, azti-formuletan, sendaketetan eta abarretan hainbat eta hainbat euskal mendietako landarek: artoa, garia, baratxuria, garoa (ira), gaztainondoa... agertzen dira mito-kontakizunetan; ihia, elorri zuria, intsusalorea intxaur eta piko-ostoa, erromeroa, etab...berriz, oso maiteak dira, dituzten azti eta senda - balioagatik.

Badira baita mitoak ere landare batzuen onuraz eta goroldioaren kalleaz, edo ohiturak landare batzuen inguruan: eguzki-lorea jartzen, lehen fruitua jatera-koan esateko formulak.

G) URA

Munduko beste kultura nagusiekin batera, lehen-euskadunentzat ere ura jainkotasunaren agerpena da eta bere egitekoa, bizitza berriztatzea eta horretarako oztopo direnak kentzea eta garbitzea izan ohi da.

Badira goinaturazko indarra duten iturriak: San Juan Iturri (Igantz), Andre Mari-Iturri (Urdiain), Doi-

neiturrieta (Aralar).

Uraren ohikuneak urtaroen atarian agertu ohi dira: San Juan egunez, Urte Zahar-Urte Berri jaietan. Uraren mitoak geroago kristautuak izan ziren eta ur bedeinkatua erabil izan da bizitzako une ugarietan: ekaitzak urruntzeko asmoz, haziendak edo soroak bedeinkatzeko...

Denan den, era batera, nahiz bestera, argi dago urak esanahi sakratu haundia izan duela beti gure artean:

- Indar garbitzaile eta berriztatzaile bezala
- Bizitzaren irudi bezala
- Sendagarri, gaztegarri, bizitza emaile bezala.

Honetara iritsi garenez gero, Manuel Lekuonak jasoa duen aipatuko dut:

“Erreka ondoan, Igantzitik ez urruti, bada ermita bat San Joan Bataiatzaileari eskeinia. Ermitaren oinetan dago SAN JOAN ITURRI deitzen den iturria. Jende asko, gaztea batez ere, joaten da hara inguruko herrietatik ekainaren 24ean egiten den erromerira; erromeri hau 23 gauez hasi ohi da. Gorputzaren azalean gaitzen bat daukatenak hango uretan busti ohi dira, gau horretan bertute bereiziz hornituak daudelako, eta kandelak pizten dizkiete, han gertu, haitzulo baten dagoen San Joannen irudiari. Gaisoek lehortzerakoan erabiltzen dituzten zapiak inguruko larretan uzten dira zintzilik. Igantziko sakristaua arduratzen da horiek jasotzen eta erretzen”.

Manuel Lekuonak jasoa.

Itsas kiroletan aritzeko eskaintza luzatzen du

Arraun Elkarteak

Urtero bezala, Arraun Elkarteak bere kirol jarduera zerrenda zabala luzatzen du, bertatik igarotzen diren guztiek buru ditzaten. Udako hila batean praktikatzen diren arrauna eta piraguismoarako parada ezin hobea daukagu, eta hortaz gain, gimnasioa ere ezin ahaztu. Hona hemen Arraun Elkartearen eskaintzen dena laburbilduta:

1.- PIRAGUA ETA ARRAUNA IKASTAROAK

- 1. Txanda-** uztailaren 2tik 13ra **2. Txanda-** uztailaren 16tik 30era
3. Txanda- abuztuaren 1etik 14ra **4. Txanda-** abuztuaren 16tik 29ra

Ordutegiak: 1. taldea- 9.30etatik 11.00etara
 2. taldea- 11.15etatik 12.45etara

Prezioak:

Piragua.....40'00 € (bazkideak 35'00 €)
 Arrauna.....35'00 € (bazkideak 30'00 €)
 (izena emateko: ekainaren 11tik abuztuaren 16ra)

2.- PIRAGUEN ALOKAIRUA (UZTAILA ETA ABUZTUA):

-Arraun elkartearen: astelehenetik ostiralera 16.00etatik 20.00etara.
 Larunbatetan 9.30etatik 13.00etara
 -Hondartzan: egunero (astelehenetik igandera) 11.00etatik aurrera.

Prezioak:

Bateko piragua6'00 €/orduko
 Biko piragua9'00 €/orduko

3.-TALDE ANTOLATUAK:

Aukerak:

Begiralea kontratatzea (ez dago gutxieneko kopurua)
 Begiralearen prezioa orduko.....20'00 €

Badiatik paseoak (gutxieneko taldea: 4 lagun)

Bidasoa ibaiaren jaitsierak (gutxieneko taldea: 8 lagun)
 3 bat ordu26'00 €/laguneko.
 (Bariatutik Arraun Elkarteraino)
 (Izena emateko: uda osoan irailaren 2 arte)

4.- ARRAUN-ONTZIEN ALOKAIRUA :

Ontziak: arraunlari 1 edo 2ko iolak eta skiffak.

Prezioa: batekoa: 8'00 €/o. biko: 12'00 €/o.
 (uztailean eta abuztuan)

5.-PIRAGUEN ALOKAIRUA ETA BILTEGIA:

- 5.1. Piraguen alokairua**.....140'00 € urte osorako
5.2. Piraguen biltegia.....120'00 €/urtea

6.- ARRAUN ELKARTEA GIMNASIOA:

Aerobika, spinning-a, pilatesa, tonifikazioa, body building-a, muskulazioa, mantenimenduko gimnasia, g. terapeutikoa, sauna, masajeak..... 36'00 €/hileko



Aitor Kerejeta da alkate berria

Igarotako larunbatetik hasita Aitor Kerejeta da Hondarribiko Alkate berria. Eguerdiko 12.00etan hasitako Osoko Bilkuran hala erabaki zen, alderdi politiko bakoitzak berak aurkeztutako alkategaia bozkatu zuen, eta ondorioz, bakoitzak zeukan zinegotzi kopurua ikusita, Kerejetak sei boto lortu zituen, EAKo Ion Elizaldekin lau, EAEnko Mikel Mariskalekin hiru, PSOEko Maria Luisari bi, eta bana PPko Jose Manuel Lizarraga eta EBAralarreko Marian Santosek.

Alkate berria pozik zegoen. Lehenik eta behin Borja Jauregi ordurarteko alkateari hitz batzuk zuzendu zizkion, azken hamabi urteotan egindako lanagatik.

Ondoren, eman beharreko pausuak zeintzuk diren esan zuen. "Hauteskundeetako programan aurkeztu genuena betetzea da gure asmoa. Une hauetan Udala gutxiengoan dago eta akordioak lortzen saiatuko gara".

"Udala osatzen dugunon artean" jarraitu zuen Kerejetak, "Hondarribia eraikitzeari ekin behar diugu. Ez ditut ahaztu nahi gurekin dauden eta bere eskubideak urratuak dauzkaten zinegotziak. Elkarriketaren bidea da jarraituko duguna".

Ondoren, alderdi bakoitzeko bozeramaileen hitzak entzun ondoren, legealdi berria hasi zen.



Zinegotzien zerrenda



Alkatea

Aitor Kerejeta Cid
EAJ




Juan Mari Altuna
Muñoa
EAJ



Maite Pelaez Arregi
EAJ



Arantzazu Ocio
Larrañaga
EAJ



Gregorio Berrotaran
Etxeberria
EAJ



Maiaia Urrutia Gastesi
EAJ



Ion Elizalde Caballero
EA



Xabier Tife Susperregi
EA



Lerro hauen gainean, pasatako ekainaren 16an Udaletxeko Areto Nagusian burututako ekitaldiaren hiru irudi desberdin. Goian ezkerrean, Florentzio Arrieta eta Borja Jauregi jarduneko alkatea, eskuinean Jauregik Kerejeta alkate berriaren aginte makila eman aurretik emandako besarkada, eta ezkerraldean, Alkate berriaren lehen hitzak, zinegotzi gazte eta helduena alboan dituelarik.



**Isabel Olazabal
Lekuberria
EA**



**Florentzio Arrieta
Mendizabal
EA**



**Mikel Mariskal Balerdi
EAE**



**Miren Legorburu
Galaieta
EAE**



**Asier Sistiaga
Segurado
EAE**




**Maria Luisa Arija
Soutullo
PSOE**



**Jesús Alvarèz Yeregui
PSOE**



**José Manuel Lizarraga
Dorda
PP**



**Marian Santos Prieto
EB-ARALAR**

Antzinako Periek Alde Zaharra bete dute

Pasatako asteburu honetan burutu da Hondarribian Antzinako Perien edizio berri bat. Zazpigarren urtez jarraian Turismo departamentuak antolatuta, azken ekitaldi hau arrakasta nabaria izan da.

Larunbat goizetik, artisautza eta elikagaiak, jarduerak, tailerrak, erakusketak, trikimailu animazio taldeak, magoak, ipuin kontalariak, kalejirak, musikariak, koblariak, malabaristak, Erdi Aroko ikuskizunak, Zamorako gaiteroak, Arabiar haima, animaliak exotikoak, ipuin kontalariak, haurrentzako Erdi Aroko jokoak, Magoa, Justin eta maitagarria, sendabelarrak, aldi bereko xake partidak, arku jaurtiketak... denetatik ikusi ahal izan dira topetaraino bete diren kale historikoetan.

Udaletxetik ekitaldi honi buruz egin den balorazioa "oso positiboa" izan da. "Jadanik zazpi urte daramagu Erdi Aroko azoka antolatzen, eta bi egun hauetan Hondarribian izan dugun jende kopurua ikusita, oso pozik gaudela esan behar da".



Ekainaren 16an eta 17an Alde Zaharrean Antzineko Perien edizio berria ospatu zen. Inoiz baina jende gehiago bildu zen zazpigarren edizio honetan. Gipuzkoako ekaineko kultur eskaintzan errotu egin den jarduera bat da.

Hondartza Kiroldegiak udako ikastaroen eskaintza aurkeztu du

Uda ganean daukagu eta Hondartza Kiroldegiak hilabete hauetarako ikastaro eta ekintza desberdinen eskaintza luzatu du, kirol diziplina ugari jasotzen dituen, astelehenetik ostiralera eta goizeko lehen ordutik eguneko azkenerarte joango direnak.

Eskaintza hiriko bi alor nagusiei zuzentzen zaie: 3 eta 16 urte arteko gazteak alde batetik eta 16 urtetik gorako gazte eta helduak bestetik.

Gaztetxoek igeriketa, tenisa, kirolanitz, padela eta eskalada (8 urtetik gorakoak) egiteko aukera izango dute. Urtero bezala, abonatuentzat prezio bat dago eta abonatuak ez direnentzat beste bat.

Gazte eta helduentzat, kirol eskaintza oso zabala da. Alde batetik, hilabeteko iraupena izango duten ikastaroak daude, hala nola, tenisa, padela, cycling delakoa, pilates, gap eta eskalada, eta beste batzuk bi hilabeteko iraupenekoak; mantenimenduko gimnasia, aerobika, yoga, funky, aquagim, igeriketa eta prestakuntza fisikoa uretan.

Izen emateko epea hilaren 18 eta 19an irekiko da abonatuentzat eta hilaren 20an abonatuak ez direnentzat, Kiroldegian bertan. Informazio gehiagorako, 943 637137 telefonora deitu.



Futbol Elkartek gorengoen mailan jarraituko du



Liga txapelketako azken aurreko jardunaldian izan bazen ere, Hondarribia Futbol Elkarteko lehen taldeak Gorengoen Mailan jarraitzeko baimena lortu zuen. Gipuzkoan kategoria honetan urte gehien daraman taldea da, historikoa beraz.

Denboraldia ez da batere ona izan. Ustez talde ona bazuen ere, Oscar Hernandez entrenatzaileak ezin izan zuen behar bezalako emaitzarik lortu. Apirilaren hasieran, bost partida segidan galdu ostean, dimisioa aurkeztu zuen, eta zuzendaritza batzordeak Fernando Urtizberea hautatu zuen entrenatzaile bezala.

Urtizberek erantzun ona eman du, taldea salbatu egin du eta datorren urterako bera izango da Gorengoen Mailako taldearen entrenatzailea. Hondarribiko jokalarien aldeko apostua egingo du, bigarren taldetik hamaika jokalarigoko dituelarik. Horiekin batera, iaz taldean zeuden herriko eta Irungo jokalariekin, talde gazte eta itxaropentsua osatu du Urtizberek.

**eukeni
optika**

niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

**Focus
DAILIES™**

Ikusmen egokitze
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire
betaurrekoak
nire lentillak
Focus DAILIES



**CIBA
Vision**
A. Nussli & Co. Ltd. Basel, Switzerland

Santa Engraziako basiliza birgaitze lanetan

Maiatzaren erdialdera hasi ziren Santa Engrazia basiliza birgaitzeko lanak. Teilatua, fatxada eta barneko aldea hobetzen ari dira. Obra hau Hondarribiko Udalaren ekarpen ekonomi-koari esker ari da burutzen, Jasokunde eta Sagarrondoko Ama Birjinaren Elizako Parrokoak dirulaguntza eskatuz aurkezturiko eskabidea onartu eta gero. Ekarpenera hori 70.526,12 €koa da.

Ondarearen elementu bat denez, obrak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena du eta Hondarribiko Historiaren Lagunak Elkarteak koordinatzen du.

Obra Pello S.L. Eraikuntza eta Berritze

lanak ari da burutzen eta hil honen bukaerarako aurreikusten da obren bukaera.



Ezkerreko irudian, Santa Engraziako basilizaren birgaitze lanetan topatu den arkuaren irudi bat. Goikaldean aldiz, baseliazaren eta inguruaren argazki zahar bat.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA



Antxoaren etorkizuna kinka larrian dago

Negu luze eta gogor baten ostean, euskal arrantzaleek abiatutako antxoaren kanpaina esperimentalak espezie hori agortzeaz dagoela erakutsi du. Hori da AZTI Itsas eta Elikagaien Ikerketa Zentroak egindako ikerketa-txostenetik atera daitekeen ondorio nagusia. Horrela, apirilaren 27an abiatutako arrantzaldi esperimentalaren espedizioak eginiko lanari esker bildutako datuek, antxoa harrapatzeko debekuak espeziea berpizten lagundu ez duela argitu dute. Gogoan har dezagun, apirilaren 26an bertan, Frantziako arrantzaleek 4.000 tona antxoa porturatu zituztela. Bidasoamedia.info astekarian topa dezakezue informazio gehiago.

Egunsentiarekin gero, Hondarribiko kaitik lau ontzi irten ziren (Luis Barranko hondarribitarra haien artean zela). Eta itsaso zabalean Thalassa unti ozeanografikoa espedizio zientifikoa-ren elkargune bilakatu zen hiruzpalau astez. Orain antxoaren egoera Bizkaiko Golkoan "kezkagarritzat" jotzen dute adituek.

AZTIk txostena ekainaren 18an Bruselaren aurkeztu du. Eta bertako arduradunek Europar Arrantza Batzordean erabakiak zuhertasunez hartzea espero dute. "Arrantzari ekinez gero, antxoa gure itsasoetatik desagertu daiteke eta", azpimarratzen du txostenak.

Egoera honen aurrean eta analisi sakon bat egin ondoren, Europar Batasunako adituek beste txosten bat egingo dute. Izan ere, Nekazaritza eta Arrantza ministroen Kontseiluan

ARRANTZALE KOFRANDIAN MAIATZEAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Hilabete honetan ez da sartu batere arrainik kaian. Hortaz, ez da saldu deus ere.

(Fermin Olaskoagak jasotako datuak)



eginbeharrekoaz eztabaidatuko dute. Azkenik, erakunde horrek izango du antxoaren etorkizunaren azken hitza.

Ontzi txikiak

Itsasontzia	Marinelak
1. AITA RAMON	5
2. ARANTZAZUKO IZARRA	6
3. ARTXANDA EDER	2
4. BERRIZ AMATXO	6
5. GURE AMA MARTINA	5
6. GURE ITXAROPENA	6
7. MARIÑEL	5
8. NUEVO ROBER	6
DENETARA	41

La **bacaladera** S.A.U.

Pasaia Salado

Pol.n.Chumarra - Escorza - 20300 Irun

Telf: 943 63 90 33 Fax: 943 63 06 70 www.bacaladera.com



Irun eta bailarako kontrabandismoari buruzko liburua argitaratu da



Koldo Ortega

Egileen artean, Gelaxi Goikoetxea hondarribiarra dago

Irungo Udal Artxibategiak hiri hartan eta Bidasoa bailaran 1936 eta 1954 urteen bitartean kontrabandoak izandako garrantziari buruzko liburu bat argitaratu berri du. Egileak hiru antropologo dira, horietako bat hondarribiarra, Gelaxi Goikoetxea Emazabel. Beste biak, Daniel Fernández Gómez eta Unai Garín Quintana dira. 2003. urtean Serapio Mujika beka deialdian garaile irten zen proiektuaren emaitza da.


Liburuak 170 orrialde ditu, Irun eta bailaran Gerra Zibilean eta autarkia garaian kontrabandoak izan zuen garrantzia era ordenatu eta egokian kontatzen direlarik. Hiru historialariek, bidasoarrek kontrabandoan aritzeko zein arrazoi zituzten planteatzen da, baita zer nolako ondorioa izan zuen jokabide honek.

Autoreek liburuaren aurkezpenean esan zutenez, Irun eta bailaran Gerra Zibilaren ostean bizi zen egoeraren inguruko memoria historikoa berreskuratzea zen helburuetako bat, hiriaren estrategia ekonomikoak definitzea, eta kontrabandoa estrategia ekonomiko bat zela demostratzea era berean.

Liburuaren aurkibidea begiratzen badugu, zenbait alor desberdinetan zentratzen dela ohartuko gara: kontrabandoaren antolamendua, noizkotasuna, produktuak, emakumearen papera, poliziak, kontrabandoaren eragina, zer zioen

estatuak jokaera honen inguruan, baita beste zenbait pasadizo ere.

Lan sakona



Daniel Fernández, Unai Garín eta Gelaxi Goikoetxeak burututako ikerketa lan sakona izan da. Ia bi urte egon dira ikerketa lanetan, ez baita batere erraza hiritarrentzat beraiek edota beraien aitzindariak kontrabandoan izan zuten zerikusia azaltzea, askok ixilpean mantendu nahi duten zerbait da eta.

Lerro hauetatik, aldzkari honen irakurleei liburu honen irakurketa gomendatzea besterik ez zait geratzen. Irunen gertatzen zenak izango zuen ziuraski eraginik ere Hondarribian. Gainera, guk hemen itsasoa daukagula ikusita, ez litzateke gezurra izango era batean edo bestean lotuta zeudela esatea.

Gai interesgarria benetan norbait sakondu ahal izateko. Ez da erreza XX. mendean gertatutako kontrabandismoari buruz jendeari hitzak ateratzea, baina irakurle asko izango zituen lana izango zela ziurra da. Ia norbait animatzen den!

RESTAURANTE

ARRANTZALEEN KOFRADIA

Eguneko menua, Ekitaldiak, Ibilaldi belaontzian,
Menu bereziak, Komunioak

www.navegavela.com
Bela ikastaroak

Paseo Ramón Iribarren, nueva lonja - 20280 HONDARRIBIA
Telf.: 943 64 42 12

Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Hondar Kirolak uztaila eta abuztuan garatuko da hondartzan

Udaletxeko Areto Nagusia izan zen Hondar Kirolak izeneko proiektua aurkezteko aukeratu zen gunea. Hirugarren urtez jarraian, Hondarribiko Udaleko Gazteria eta Kirol arloek, Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak eta Sport Mundi elkarteak antolatutako ekimena abian jarriko da udan. Aurkezpenean Aitor Kerejeta alkatea, Oscar Holgado Prebentzio Komunitarioko ordezkaria eta Aitor Etxaburu, Sportmundi elkartearen erantzulea izan ziren.

Hondar Kirolak Hondarribiko hondartzan garatuko da uztailaren 12tik abuztuaren 31ra. 12 urtez gorakoen-tzat zuzentzen da eta 14 gazte enplegatuko ditu, txapelketak antolatu, epaile lanak egin eta gazte koadri-lak parte hartzerantz animatzen arituko direlarik. Iaz,

4400 erabiltzaile izan ziren ekimen honetan parte hartu zutenak.

Udako hilabete hauetarako eskaintzak futbol eta hondartza-boleibol txapelketak aurreikusten ditu, beste zenbait animazio ekintzarekin batera.

Proiektuaren helburu nagusiak, aisialdi osasungarria, kirol ekintzak proposatzea ingurune informalean, gazteak ekintza komunitarioetan parte hartzerantz bultzatzea eta elkartasuna bultzatzea dira.

Ekimenak alderdi solidario bat dauka ere. Partehartzaile bakoitzak euro bat ordaindu beharko du txapelketetan parte hartzeagatik. Lortzen den kopurua, Senegalera bideratuko da, Avenir de L'Enfant izeneko elkarteak kudeatzen duen haurren etxe batentzako laguntza gisa.

Kerejeta alkatea esan zuenez, "hondartza espazio honetan, gazteek parte hartzeaz gain, eskaerak egin ditzazkete, baina eskaerak egitearekin batera, lan egiteko prest agertzea ezinbestekoa da".

Ezkerretik eskuinera, Oscar Holgado, Aitor Kerejeta eta Aitor Etxaburu.



OTXOA JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Gerra Zibilaren inguruko liburua hondarribiar baten eskutik

Udaletxeko Areto Nagusian burutu zen ekainaren 14an Espainiako Gerra Zibilaren ikuspuntu berezia eskaintzen duen liburu honen aurkezpena. 'Guerra



Liburuaren azala

de España 1936 - 1939; Testimonio de un militar de la República' izenburuan, Ricardo Alvarez Royuela hondarribiarrak gerra zibilaz dituen oroitzapenak bildu ditu liburu honetan. "14 urte nituela Loiolako kuarteleko artilleria sailean sartu eta bertan egon nintzen gerra zibila hasi arte. Guadalupeko gotorlekura bidali eta matxinatutako milita-

rren esku geratu zen arte, bertan jazotako gertaeren lekuko zuzena naizela esan daiteke" azaldu zuen egileak.

"Frantziara pasa ondoren" jarraitu zuen Alvarez Royuelak, "Bilbora itzuli eta artilleriako sarjentu gisa Iparraldeko kanpaina osoa egin nuen, Otxandio eta Gernikako bonbardaketen lekuko izan nintzelarik. Bilbo jauzi ondoren, Iparraldeko frontea suntsitu arte, Asturias aldera erretiratu ginen, Gijongo setioari mirariz ihes eginez. Ontzi txiki batean zenbait egunez noraezean ibili ondoren, ez jatekorik ez edatekorik gabe, Southampton korazatu ingelesak salbatu gin-


tuen. Aragoiko frontean sartuta, Teruel eta Eboko guduetan aktiboki parte hartu nuen, Frantziara erretiratu eta bertatik ihes egin nuen kontzentrazio-eremu batera eraman ninduten arte. Gerra amaitutzat jotzekotan zirela, europar gatazka sortu zen; han, Errepublikari leial, Erresistentziaren zerrendan sartu nintzen".

Aurkezpen ekitaldian izan ziren Kote Guevara liburuzaina eta Xabier Gezala jarduneko Kultur zinegotzia. Guevararen iritziz, "irakurtzeko moduko liburu bat da. Eskuetan eduki nuenean, hasi eta ezin izan nuen utzi bukatu arte. Bizitza osoan bururkatzen eta lanean aritu den gizon baten lana da".

Bien bitartean, Gezalak biziki gomendatu zuen irakurketa. "Oso pasadizo interesgarriak daude, oso goxoak eta nahitaez irakurtzekoak. Hasten denak gero ezin du utzi".



Ezkerretik eskuinera, Kote Guevara, Ricardo Alvarez eta Xabier Gezala.



Etkez-etxeko zerbitzua abian jarri du Txuntxumelak



Txuntxumela bio-denda duela egun gutxi Ficoba, Gipuzkoako Erakustazokan egin den Bioterraren laugarren edizioan izan da. Antolatzaileek igorri dizkiguten datuen arabera, 5.700 bisitarik hartu dute parte ekainaren 1etik 3ra ospatu den ekitaldi honetan. Datu hauetan azpimarratzekoa da bisitari kopuruaren (%7 izan da), eta erakusketa-azaleraren igoera (%12 hartu du). Erakusketariei dagokienez, Bioterraren edizio berri honetan guztira 108k hartu dute parte, 76 stand-etan.

Historia apur bat eginez, Txuntxumela 1979. urtean sortu zen Hondarribian. Orduan belar-denda bat zen, baina denborak aurrera egin ahala, supermerkatu biologiko-ekologiko bat bilakatu da.

Gure helburuen artean, medikuntza naturala bultzatzea

dago, jasangarritasuna zaindu, ingurugiroa lagundu, neska-mutil ekologikoak sortu, eta ingurugiroarekiko konpromezua hartuko duten gurasoak lortzea daude.

Urte osoan eskaintza desberdinak luzatzeaz gain, orain Hondarribia, Irun eta Hendaiarako etkez-etxeko zerbitzua abian jarri du Txuntxumelak.



Ofertas Eskaintzak

- SANITURI soja esnea 1 l: 1,90 €
1+1 dohainik
 - Eco-Salin fruitu marmelada 325 gr.: 3,68 €
1 + 1 dohainik
 - Cookies Sprits Molen azukrarik gabeko
gailetak 150 gr.: 2,60 €
1 + 1 dohainik
 - Cookies txokolate Molen azukarik gabeko
gailetak 150 gr.: 3,05 €
1 + 1 dohainik
 - GHF 3-D erreala jele 2000 mg.: 18,88 €
1 + 1 dohainik
 - Aloe bera zukua (aloe garbia) 1l.: 17,20 €
1 + 1 dohainik (aloe bera zukua 500ml.)
- .Arreta pertsonala


EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



EZ DADILA EGUZKIA SARTU


Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizutzen hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloia ordez fusila hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikak defendatzeko. Agintariek, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriez, Euskadiko selekzioa osatuz eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditi aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntz ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzea. Era berean, hizkerok euskalkien sailkapenean dute kokaguneari buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagutietatik frankismora arte. Horretarako 15

historialariko taldearen lankidetzak izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidaragarratasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Orteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona

asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



HONDARRIBIKO BASERRIAK

Hondarribiko udalerrian dauden baserri guztien bilduma da, agiri eta bizi izan ziren familia-zerrendarekin, eta abar... Fermin Olaskoaga, Luis Mari Elozegi, Jose

Ramon Gebara eta Koldo Ortega hondarribiarrek egindako lan bikaina dugu. 546 orrialdetan gure baserri eta aitzindari buruz zerbait gehiago jakiteko aukera paregabea. Auzoz-auzo gaur egun dauden eta egon diren baserrien informazio zabala topatuko duzu bertan, ongi dokumentatua gainera



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

San Pedro 12 - HONDARRIBIA

Telf: 943 64 25 25



Zer egin udan?

GOMENDATZEN DIZUT, MEREZI DU!! LEHIAKETA

Truka ezazu bidaiatzeko informazio praktikoa!!!!

Lehiaketaren helburua da oporretako gomendioak jasotzea; zure aisialdi edo oporraldian ezagutu duzun lekuaren berri jaso nahi dugu, ondoren beste bidaiarientzat erabilgarria izan dadin.

Oinarriak:

- Gomendio bat eman behar da, eta bi arrazoi, zergatik gomendatzen den modu laburrean azalduz.
- Gomendioak argazki batekin lagunduta joan beharko du.
- Nahi beste gomendio aurkez daitezke.

Sariak:

1. Kategoria: 12-17 urte: i-poda edo argazki kamera.
2. Kategoria: 18-34 urte: i-poda edo oporralditxo bat.

Idatzi zure gomendioa www.aizue.com blogean edo **ekarri Gazte Informazio Bulegora**.

Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero pasa zaitez bulegotik!!!!!!

Epea: Irailaren 30a

UDAKO ORDUTEGIA



*Utzailaren 1etik Irailaren
15era, bulegoko ordutegia
aldatuko dugu:*

Astelehenetik Ostiralera:

10:00-13:30

Larunbatetan:

10:00-13:00

OPORRAK PRESTATZEN???

Oraindik ez dakizula nora joan aurtengo oporretan?
Orain leku desberdinen informazioa eskuratzeko,
Bidaiateka interneten kontsulta dezakezu.

Sartu

<http://www.gipuzkoagazteria.net/programak/vacae.htm>
orrialdean edo pasa bulegotik.

Honetaz gain, bulegoan bertan aterpekide eta ikasle
txartela atera ditzakezu!!!



Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Zein da baserri honen izena ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Maiatzeko alean jarritako galderari ia 40 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Elena Loyarte Legorburu** da. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den ermita edo basiliza Jait-zubia auzoan dago. Afarirako txartela Udal Euskara Batzordean jaso behar da. Bigarren saria aldiz, liburu sorta baten irabazlea, **Jasone Lecuona Ochoteco** izan da.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Gure herriko baserri baten berri galdetzen dizuegu. Irudian agertzen den ikuspegi honetatik ez da hain ezaguna, beti beste aldetik begiratzera ohituak gaude eta. Pista beza-la, esan laster bertan behera bota egingo dutela, errepide berri baten sorrerak eta etxebizitzaren eraikuntzak hala ekarrita.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, uztailaren 13a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertso-nentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.



Gosariak
Eguneko menuak:
 4 sarrerako
 4 bigarren platera
Afaltzeko plater konbinatuak

C/ San Pedro ,34
 Telf. 943 645 597
 20280 HONDARRIBIA

eguerdiko menuak
 sukaldaritza berria
 eguneroko plater berriak
 gaez, gure karta zabala, informala

telf.: 943 641 952

san pedro kalea, 79
 20280 hondarribia



Goxoenda

Txarrantxarekin lanean Benta inguruan



Berriro ere iritsi gara hainbat irakurlek hain gustoko duen aldizkariaren atalera. Oraingo honetan apur bat aldatzea erabaki dugu, eta beste ikuspuntu bat erabili nahi izan dugu, beti eraikinak eta kaleak argitaratzen baititugu.

Jose Mari Castillok duela urte batzuk argitaratu zuen liburura jo dugu, "Argazkiak Hondarribia atzo" izeneko liburuaren 232. orrialdean irudi eder hau topatu dugu. Koltxoietako artilea txarrantxarekin kardatzen ari dira emakume hauek, beste ofizio asko bezala, denborarekin galdu egin den lana.

Etxean horrelako altxorrak dituen jendeak, eta gure aldizkarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Hondarribiko Udaleko Udak Euskara Batzordera bidaltzea besterik ez du, gustora asko argitaratuko ditugu eta. Posta elektronikoz bidali nahi duenak aldiz, info@zifcomunicacion.com helbidera bidali mesedez.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
r e s t a u r a n t e

Higer Bidea, nº6 - 20280 HONDARRIBIA
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

Maiatza 2007

JAIOTZAK MAIATZAN

12an: TELMO Iridoi Perez, Hondarribiko Alfonso Imanol eta Hondarribiko Monicaren semea.

13an: MARA Curiel Oronoz, Donostiako Felix eta Hondarribiko Guadaluperen alaba.

21ean: ELENA Zuaznabar Montoya, Hondarribiko Andres eta Irungo Monicaren alaba.

24an: EIDER Arrastio Sansinenea, Irungo Esteban eta Irungo Cristinaren alaba.

25ean: AINGERU Lizarraga Perez, Hondarribiko Iñigo

eta Irungo Maria Aranzazuren semea.

25ean: CARMEN Saez de Ocariz Amunarriz, Gasteizko Pablo eta Hondarribiko Isabelen alaba.

31n: OIHAN Fontan Martin, Erreterriako Ibon eta Erreterriako Arantxaren semea.

31n: MARTXEL Izkue Coria, Irungo Oscar Cruz eta Donostiako Nataliaren semea.



EZKONTZAK

12an: ARITZ Galarraga Lopetegi, Erreterriakoa, eta **NURIA de Juan Serrahima**, Bartzelonakoa.

12an: JON ANDER Goikoetxea Labiano, Bilbokoa, eta **CRISTINA Gonzalez Pellegrini**, Irungoa.

12an: JAVIER Arroyo Eguren, Irungoa, eta **PURIFICACION Fernandez Ramos**, Donostiakoa.

12an: ANDONI Berrotaran Borreguero, Hondarribikoa, eta **MARIA Irure Cortadi**, Zestoakoa.

12an: FLOREN Chaparro Zamora, Hondarribikoa, eta **NEREA Ribate Odriozola**, Irungoa.

12an: OSKAR Etxebeste Larruskain, Hondarribikoa, eta **AMAIA Perez Bertiz**, Irungoa.

19an: RAFAEL Guardiola Gorrotxategi, Tolosakoa, eta **MARIA LURDES Gorostidi Fano**, Tolosakoa.

19an: MIKEL JOSEBA Ochoa Oronoz, Hondarribikoa, eta **MARIA ARANZAZU Biurrarena Lizarribar**, Irungoa.

19an: JAVIER Goikoetxea Agirre, Hondarribikoa, eta **SUSANA Quesada Jimenez**, Iruñakoa.

26an: JUAN IGNACIO Oiarzabal Hernandezena, Irungoa, eta **MARIA ISABEL Hidalgo Carrillo**, Irungoa.

26an: PER GUSTAF INGEMAR Svensson, Örnköldsvik-koa (Suedia), eta **MARIA CARMEN Birto Lekuona**, Hondarribikoa.

26an: DANIEL Revuelta Martin, Bilbokoa, eta **MARIA Lopez Guitera**, Hondarribikoa.



HERIOTZAK

8an: MARIA PILAR Iridoi Etxarte, Hondarribikoa, 80 urte, Minasoroeta kalean.

9an: MAURICIO Jauregui Bengoechea, Hondarribikoa, 88 urte, Murru kalean.

11n: EUGENIO Arribillaga Narbarte, Hondarribikoa, 72 urte, Axular kalean.

13an: ASCENSION RAMON Lizarazu Iruetagoiena, Donostiakoa, 45 urte, Miñunean.

14an: JESUS MARIA Zubeldia Garaño, Hondarribikoa, 91 urte, Ziburun.

14an: MARIA CARMEN Erkizia Iraeta, Erreterriakoa, 88 urte, Foru kalean.

17an: MARIA TIBURCIA Gorosterrazu Ezkurra, Zubietakoa, 93 urte, Donostia kalean.

18an: ANSELMO Lapitz Salaberria, Hondarribikoa, 80 urte, Itxas Argi kalean.

19an: GENOVEVA Forest Tarrat, Bartzelonakoa, 79 urte, Javier Ugarte plazan.

23an: ANTONIA Aranzasti Legorburu, Hondarribikoa, 82 urte, Amute kalean.

26an: DOMINGA Barrientos Fernandez, Valdepolo-koa (Leon), 85 urte, Mendelu kalean.

30ean: ANTONIO Amunarriz Alza, Hondarribikoa, 74 urte, Soroetagainen.

31n: JOSE JAVIER Etxaide Zunuzundegi, Hondarribikoa, 59 urte, Irunen.



MAIATZAKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Tenperaturarik goren:	27,6° C, hilaren 13an.
Tenperaturarik beherena:	7,6° C, hilaren 2an.
Bataz besteko tenperatura:	16,1° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 76.
Euri-litroen kopurua:	105,8 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 14an 20,6 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 19ko 21,40an, 24,0 litro.
Egun euritsuak:	23 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak	egun bat
Ekaitz egunak	2 egun
Behe-laino egunak:	0 egun
Ihintz egunak:	10 egun
Zeru oskarbi:	egun bat
Zeru lainotua:	9 egun
Zeru iluna:	21 egun
Eguzki kopurua:	145,3 ordu
Batez besteko presioa:	1016,1 milibar
Presiorik goren:	1029,7 milibar, hilaren 7an
Presiorik beherena:	1003,0 milibar, hilaren 13an
Haizea >55 Km/ord.	4 egun
Haizerik indartsuena:	hilaren 27ko 19,48an, 71 Km/ord.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK MAIATZAN

Altak:Jaiotzak: 8, eta kanpotik etorriak: 59
Bajak:Hildakoak: 13, eta herritik joanak: 56
Biztanle kopuru orokorra: 16.413 bizilagun.

MAIATZAKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK

Mailegatutako liburuak: 422 euskaraz, 1273 gaztelaniaz eta 17 bestelakoak. Guztira: 1712 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 27 euskaraz, 115 gaztelaniaz eta 5 bestelakoak. Guztira: 149 liburu.

Bazkide berriak: 15 gizon eta 16 emakume. Horietatik 16 heldu eta 15 haur. Guztira 31.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak: *Euskeraz:* KNISTER. - Kika supersorgina eta urperatutako hiria.- Gero.

Gaztelaniaz: MORA. - El capitán Trueno.

Helduak:*Euskeraz:* ETXEBERRIA, Hasier.-Mutuaren hitzak.- Susa

Gaztelaniaz: FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

joski

Lentzeria arropa
Haurrentzat arropa

Matxin de Artzu, 18

Tel.: 943 64 17 65 - 20280 HONDARRIBIA





Zure ospakizunak
ahaztezinak bihur
daitezzen

1.982 - 2.007

25 URTE HONDARRIBITARREN ZERBITZURA

JAIZUBIA- Tel. 943 64 31 94 - 20280 HONDARRIBIA - www.bekoerrota.com

www.doble-a.com



Amute 8 - behea C Hondarribia
Telf.: 943 667 003

doble A PROTECCION SOLAR

Kortinak
Oihalak
Margo-papera
Jardineko altzariak

**EUSKAL
TONBOLA**

bai
euskarari



asteburuak
Pirinioetan
8 lagunentzako

auto-giro
hegaldiak



afariak



42" plasmak



DVD-ak



TDT-ak



kotxeak



txartelak salgai
Gipuzkoa
osoko tabernetan

